

AOL eta Time Warnerren arteko fusioa

Fusio gehiago?

AOL Time Warnerren sorrerak agerian utzi du EEBBetako komunikabide tradizionalak eta internet konpainiek elkarrenganako duten beharra. Zerbitzaileek euren portaleak edukiz bete behar dituzte eta, komunikabideek, berriz, kontutan izan behar dute sareak eskaintzen dituen banaketa aukerak. Steve Case eta Gerald Levin aitzindariak izan dira, eta, aditu askoren iritzian fusio honen atzetik beste zenbait bategi- te erraldoi etorriko dira.

Disney, CBS-Viacom edo AT&T erraldoiek ikusmiran dituzte Yahoo, Lycos eta Excite bezalako portaleak. Microsoftek ere ezin du atzera gel- ditu eta Gatesen konpainia da Yahoo erosteko ahalmena duen gutxietako bat. Hala ere, Yahook bere independentzia mantendu nahi duela berrets- i du behin eta berriz.

Beste eztabaida bat ere piztu du EEBBetan. Benetan beharrezkoa al dira fusioak arlo hone- tan? Aditu batek esaten zuen: «Zaila da maila horretako edukiek ez dutela banaketarik izango pentsatzea, edota maila horretako banatzaileek ez dutela edukirik izango».

Kontzentrazioaruntz?

Fusio honen atzetik etor daitezken beste bategi- teek, komunikabideen eta banaketa sareen bateratze honek, ekar ditzakeen ondorioak ere aztergai eta eztabaidagai daude une honetan, batez ere informazio eta adierazpen askatasune- an izan dezakeen eraginarengatik. EEBBetan oso posiblea da epe laburrean informazio kanal guztiak hiru multzo erraldoiren kontrolpean izat- ea, zibernetikaren eskutik adierazpen askata- sunarentzako piztu ziren itxaropenak zapuztuz.

Kazetarien Nazioarteko Federazioko idazkari nagusi Aidan Whitek azaldu du arazoa: «Konpai- nia sorta baten kontrolpean dago informazioa eta informazio hori jendearengana iristeko modua. Aniztasun informatiboaren kontrako mehatxu arriskutsua dugu begien aurrean. Fusio honek aisialdi, komunikazio eta merkatal kontzeptuak berdefinitu ditzake, baina demo- krazia, pluralismoa eta komunikabideen kalita- tea mehatxatu dezake. Informazio emaria euren merkatal estrategiaren arabera kanalizatuko duten zaindari korporatiboak izango ditugu, honen kontra ezer egin ezear».

Case vs. Gates?

«Zuen konpainiaren %20a edo ehuneko ehuna eros dezaket, edo ni neu negozio honetan sartu naiteke eta zuek lurperatu», esan zion Bill Gate- sek Steve Case AOLen sortzaileari 1993an. Microsoften sortzailea, ezer gutxik beldurtzen du, baina Steve Caseren kontsagrazioa ez zaio momentu onenean iritsi.

Microsoft monopolio salaketapean auzibidean dagoen une honetan, Gatesek konpainiaren buruzagitza exekutiboak uztea erabaki du, lehen- dakaritzan jarraituko badu ere. EEBBetako Jus- tizia departamentuak enpresa segregatu deza- keela dioten zurrumurruen erdian etorri da Gatesen erabakia. Microsoften arabera, interne- teko estrategia onena ez omen da fusioen bidea, sarerako softwarearen garapena baizik.

Baina AOL Time Warnerren fusioak Gatesi min egin diola ulertu daiteke Mark Murray Microsofteko bozeramailearen hitzetatik: «Ironi- koa da Microsoften segregazioaz hitz egitea AOLek eta Time Warnerrek helburu nagusi gure kontra egitea duen historiako fusio handiena iragarri ostean».

tara iritsiko den kable bidezko abiadura handiko internet zerbitzua.

Edukien alorrean *Time Magazine*, *People*, *Sports Illustrated*, eta *Fortune* bezalako aldizkari espezia- lizatuek Interneteko eus- karria eta 20 milioi bezero potentzial izango dituzte AOLen. CNN, HBO eta Car- toon Network telebista kateak, Warner Brothers zinema estudioak eta War- ner Music edota Maverick Records diskografiak ere promozio bide pribilegia- tua izango dute sarean.

Baina Time Warnerren ondasun preziatuenetako bat Road Runner sortu berri duen abiadura handiko kable bidezko internet sarea da, AOLek orain eskura izango duena. Hain zuzen, interne- terako sarrera azkarra da une honetan sarean bizi den gerra nagusia. Kable bidezko interneta telefono sare bidez- koa baina 100 bider azkarra- goa da, eta telebista zein ordenadorera pantaila baka- rrean biltzea du xede nagusi.

Argi ikus daiteke epe oso laburrean komunikabideen munduak aldaketa nabarmen- a izango dituela, eta ildo horretatik jaio da lehen mul- timedia erraldoia. Atzetik honen antzeko beste mugimendu estrategikoak etorri- ko direla ere argi dute aditu ugari.

Azken finean, 'interneten aroa' deitua izan den horren hastapenak besterik ez ditu- gu bizi eta, une honetan, las- terketa teknologiko horretar- ako irteera posizioak daude jokoan.



Telebista interaktiboa errealitate

Telebista interaktiboaren garaia geroz eta hurbilago dugu. Pantailaren aurrean eseri eta korreoak jaso, egu- neko prentsa irakurri, aste- ko erosketak egin, afarita- rako pizza eskatu, Austr- aliako adiskideari bisitatxo bat egin, edo moda-modan dagoen bideoklipa edo filma ikusi... Guzti hori telebista eta ordenadore pertsonala- ren ezaugarriak bilduko dituen pantaila baten bitar- tez. Amets futurista edo errealitatea?

Kable bidez interneterako sarrera 100 bider azkarra- goa da telefonoz baino, eta banda zabalerak baliabiabi- de gehiago eskaintzen ditu. Gainera, interneten bilaka- erak kostuak merketu ditu eta ondorioz kontsumitzaile- en oniritzia ere eskura du telebista interaktiboak.

Pantaila bakar baten bitartez zerbitzu guztiak

eskaintzea da orain AOL Time Warnerren

helburu nagusia

Hain zuzen, AOL Time Warner erraldoi jaio berria-

ren helburu na- gusia telebista interaktibo hori da. Time War- rrek 90. hamar- kada hasieran ekin zion proiektu honen gara- penari, Silicon Valley ezagune- an jaio zen Or- lando proiektua finantzatzuz. Telekonputatzai- lea, telebista in- teraktiboa zuten helburu.

Baina proiektuak ez zuen

arrakastarik izan, batez ere 5.000 dolar ba- lio zuelako tele- konputatzaile bakoitzak. Baina orain, in- terneten gara- penak kostuak izugarri jaitsi di- tuenean, estatu batuarrek ezin dute itxaron zer- bitzu guztiak es- kura izan arte, merkataritza elektronikoa, in- formazio finantzieroa, en-

tretenimendua... Milioika dira jada kablara abonatuak daudenak, milioika interne- terako sarrera dutenak. eta urte gutxitan are gehiago izango dira.

EEBBek bizi duten irault- za teknologikoak atzerabi- derik ez duela dirudi. Eta bitartean, Europa atzean gelditzen ari omen da. Euro- pako Batasuneko informa- zio gizarterako komisarioa- zientzat telefono komisa- riak dira atzerapen horren errudun nagusia.

Baina amets futuristen gauzapez hitz egiterako- an beste gauza bat ere kon- tutan eduki beharko litzate- ke: munduko biztanleen hiru laurdenak amets apa- lagoak dituela.

Irune Lasa
DONOSTIA